

Oinarrizko gaitasunak

Zientzia-, teknologia-
eta osasun-kulturarako
gaitasuna

Hizkuntza-komunikaziorako
gaitasuna

Matematikarako
gaitasuna

Gizarterako eta
herritartasunerako
gaitasuna

Giza eta
arte-kulturarako
gaitasuna

Material didaktikoa

Lehen Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

0080

MUSATADI

EUSKAL MUSIKA-TRESNAK. NOLAKOAK DIRA GURE USTEZ?

(*Sekuentzia didaktikoaren bertsio digitala: <https://sites.google.com/site/musikatresnendescribapenak/>)

Sekuentziak arlo hauek hartzen ditu: Hizkuntza, Arte Hezkuntza eta Musika, ICTak.

Gaia: Deskripzioak

Maila: Lehen Hezkuntzako 4. maila

Saio kopurua: 8

Proposamenaren testuingurua:

Euskara lantzea oinarrian duen ikas sekuentzia hau Giza- eta Arte-kulturarako gaitasuna garatzen laguntzeko baliabide didaktiko gisa proposatzen da. Ikasleak gure kulturaren ezaugarri diren euskal musika-tresnen munduan murgilduko dira: horiek ezagutu eta deskribatu egingo dituzte. Hartara, forma, tamaina, atalak eta soinuk nolakoak diren adieraziko dute beren hitzekin, adjektiboak, konparazioak eta onomatopeiak erabiliz. Marrakiaz ere egingo dituzte deskripzio horien erakusgarri. Eginiko lana musikari lotutako ekitaldietan nahiz beste egun berezi batean, ikastetxean bertan edo ikastetxetik kanpo, paperezko nahiz formatu digitaleko liburuxka edo horma-irudien bidez erakutsiko dute, gure musika-tresnak ezagutarazteko, eta euren iritzia plazaratzeko.

Sekuentzia honek Hizkuntzen Tratatua Bateratuaren planteamenduari eusten dio eta gaztelania arloan proposatzen den sekuentziarekin batera aurkeztzen da. Dena den, biak unitate soil moduan landu daitezke. Gaztelania arloan, ohikoak ez diren musika-tresnen inguruko ikerketa txikia abiapuntu, musika-tresna horien deskripzioak egingo dituzte ahoz eta idatziz, eta horma-digital batean txertatu.

Ikas sekuentzia biak deskripzioen inguruan ari dira, eta, nolabait, elkarri laguntzen diote; horregatik egiten dira bien arteko loturak eta aipamenak.

Sekuentzia didaktiko honen bidez lantzen diren Oinarrizko Gaitasunak

- Giza- eta Arte-kulturarako gaitasuna (2. jarduera, 6. jarduera)
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (jarduera guztietan).
- Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna (jarduera guztietan: talde lana, gogoeta eta erabakiak hartzea bultzatzen baita).
- IKT baliabideak erabiltzeko eta informazioa tratatzeko gaitasuna (3. jarduera, 6. jarduera).
- Ikasten Ikasteko eta Norberaren Autonomia eta Ekimenerako gaitasuna (1. jarduera, 6. jarduera, 7. jarduera).

Helburu didaktikoak

- Deskripzio testuen ezaugarriak antzematea eta erabiltzea
- Euskal musika-tresnak ezagutzea eta deskribatzea.
- Deskripzio subjektiboak egiteko adjektiboak, konparazioak, onomatopeiak erabiltzea.
- Lankidetzan aritzea norberaren iritzia adieraziz eta besteenak errespetatuz.
- Autoebaluazio eta ebaluazio teknikan trebatzea.

- Era guztietako bereizkeria adierazten duten esapideak saihestea.

Edukiak

- Deskripzio testuak: ezaugarriak
- Deskripzioak: subjektiboak eta objektiboak
- Hizkuntza baliabideak: adjektiboak, konparazioak eta onomatopeiak
- Deskripzioak idazteko prozedurak: ordena
- Lankidetzarako arauak, elkarrekiko errespetuzko mintzaira.

Jardueren segida

Planifikatzea

Motibazioa eta egitekoen planifikazioa. Zer egingo dugu?

Egitea

- 1. jarduera.** Euskal Herriko musika-tresnak ezagutzen
- 2. jarduera:** Zer dira, nolakoak dira?
- 3. jarduera.** Euskal musika-tresnak deskribatzen
- 4. jarduera.** Ordenatuta ala desordenatuta?
- 5. jarduera.** Orain jolastera! Nork du beste erdia?
- 6. jarduera.** Guk hautatutako musika-tresnak deskribatzen eta marrazten

Erabiltzea

Gure deskripzioak ikusgai.

- 7. jarduera** Zer egin dugu eta horrek zertarako balio digu?

Ebaluazio irizpideak

- Ea emandako deskripzioak aztertzen dituen
- Ea euskal musika-tresnak identifikatzeko gai den
- Ea adjektibo, onomatopeia eta konparazio egokiak hautatu eta idazten dituen
- Ea modu egokian deskribatzeko gai den (ordenaturik, landutako hizkuntza baliabideak erabiliz...)
- Ea hizkuntzaren gaineko gogoeta egiten duen
- Ea hizkuntza batean landutakoa bestean baliatzeko gauza den.
- Ea gai den taldeko zereginetan ikasgelan erantzukizunez aritzeko, erabakiak hartuz, iritziak emanez eta gainerakoenak errespetatuz.
- Ea gai den, jarraibideak betez, aurrez emandako informazio-iturri analogiko eta digitalak era egokian erabiltzeko.
- Ea autoebaluazio eta ebaluazio prozeduretan parte hartzen duen eta hobetzeko iradokizunak egiten dituen.

Tresnak:

- Jardueretan: kontrol-orriak eta ebaluazio-orriak
- Irakasleak erabiliko duen beste edozein (behaketa...)



Zer egingo dugu? Euskal musika-tresnak nolakoak diren gure estilora kontatuko dugu!

Musikarik gabe zer egingo genuke? Musikaz inguratuta bizi gara, kalean, telebistan... musika nonahi: jaietan, ospakizunetan... Musika gozatzeko, alaitzeko, pentsatzeko eta... bizitzeko! Imajinatzen duzue mundua eta bizitza musikarik gabe?

Euskara, Gaztelania eta Musika arloko irakasleok euskal musika lantzeko proposamena egiten dizuegu honako sekuentzia honen bidez. Gure musika-tresnak hobeto ezagutuko dituzue, eta eskolako beste kide guztiei nolakoak diren esango diezue. Zer deritzozue?

Nola egingo duzue hori? Ba... musika-tresnen erakusketa egin dezakezue eta txartelak prestatu; edo euskal soinu tresnei buruzko informazioa bildu dezakezue eta liburuxka



gisa ikusgai jarri; sarean ere argitaratu dezakezue; edo, bestela, horma-irudiak egin ditzakezue... Aukera asko daude.

Baina erakusketarako txartelak, horma-irudiak nahiz liburuxkak egin, guk testuak idaztea proposatzen dizuegu: euskal musika-tresnek nolako forma duten, nolako soinua egiten duten eta, zuen iritziz, nolakoak diren esateko, baina '*zuen estilora*'. Eta gainera, tresna horien marrazki '*bereziak*' egingo dituzue.

Gaztelaniako unitatean, musika egiteko hain ohikoak ez diren tresnak aztertuko dituzue, horien deskripzioak egin eta horma-irudi digital batean txertatuko dituzue. Bertan txerta dezakezue euskaraz egingo duzuen!


Beraz, egiteko asko dituzue eta horrek planifikazioa behar du.

Hiruko taldeak egingo dituzue eta beheko taula beteko duzue. Bertan dituzue zenbait galdera, zer egingo duzuen, nola eta zertarako egingo duzuen zehazteko. Besterik proposatu nahi baduzue, gehitu, edo baten bat kendu nahi baduzue, hala egin. Gero talde handian zehaztu egiteko nagusiak elkarrekin.

ZER EGINGO DUGU?	NOLA EGINGO DUGU?	ZERTARAKO EGINGO DUGU?
<i>Euskal musika-tresnak ezagutuko ditugu</i>	<i>Musika-tresnak ukituz eta musika joz , musika entzunez...</i>	<i>Euskal musika-tresnak hobeto ezagutzeko.</i>
<i>Musika- tresnak nolakoak diren idatziko dugu</i>	<i>Musika-tresnak arretaz begiratzuz eta aztertuz</i> <i>Soinuak eta tresnen itxura deskribatzeko hitzak eta ideiak idatziz.</i>	<i>Adjektiboak, konparazio egokiak ikasteko...</i>
<i>Marrazkiak egingo ditugu</i>	<i>Banan- banan bakoitzak berea</i>	<i>Deskripzioari laguntzeko eta testuak apaintzeko</i>
<i>..... (zer) egingo dugu denen deskripzioak bilduta.</i>	<i>Ikastetxeko beste ume guztiek musika-tresnak ondo ezagutzeko</i>

Eta zer egingo duzue lan hori guztia ebaluatzeko? Pentsa dezagun elkarrekin eta erabakiak hartu, noski!

Idatzi hodeiaren barruan zen egin daitekeen egingo duzuen lana ebaluatzeko...



1. jarduera. Euskal Herriko musika-tresnak ezagutzen

Zein euskal musika-tresna ezagutzen duzue? Talde handian aritu eta ea zenbat esaten dituzuen.

Hona hemen euskal musika-tresna batzuk. Talde handian eta arbel digitalean egingo duzue jarduera hau. Lehendabizi, izarraren barruko izenak lotu dagokien musika-tresnarekin eta idatzi laukitxoan. (Arbel digitalean proiektatuta, tresnaren gainean klikatzen baduzue soinua entzun edota bideo laburtxo bat ikusi ahal izango duzue; bestela, jo 3. jardueran dauden helbideetara).

Musu-tronpa Txistua
Danbolina Ttun-ttuna
Trikitixa Dultzaina
Alboka Txalaparta
Txirula Panderoa
Atabala

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA
Eusko Ikaskuntza

zako 4. maila



3

Ezagutzen duzue Euskal Herrian sortu edo hemengo folklorean erabiltzen den beste musika-tresnarik? Zein? Zeintzuk?


2. jarduera: Zer dira, nolakoak dira?

Irakurri beheko testua eta ikusi eta entzun bideoak, esteketan klik eginez.

*Ezin da eskuratu baina erreal da.
Egunez, hodei gozoek babesten
dute, eguzkiaren laguntzaz, urdin
koloreko munduaren sabaia
bihurtuz. Gauetan, izarrek
ezkututzen dute bere maindire
ilunarekin. Iargia ere, bertan da,
noiz handiago, noiz txikiago,
baina haren partaide gauero...*



<https://www.youtube.com/watch?v=k6RimLaP9hs>



http://www.youtube.com/watch?v=eiQpg4g_c6g

Binaka elkartuta, aztertu itzazue. Horretarako, kontuan hartu honako galdera hauek:


- ✓ Zertarako erabiltzen dira testu horiek?
- ✓ Objektu horiei buruz zer esaten da?
- ✓ Testuko ideiak ordenatuta daude?
- ✓ Testu horietan iritzirik edo sentimendurik adierazten da? Non?

Talde handian konparatu beste kideek egin duten behaketarekin.

Testu horiek deskripzioak dira. Baina zer da deskribatzea zuen ustez? Idatzi zuen definizioa.

Bada alderik argazki baten eta guk egiten dugun deskripzioaren artean? Zergatik? Horren inguruan aritzeko, jarduera hau proposatzen dizuegu:

- ✓ Lehendabizi lauko taldeak egingo dituzue eta bikoteka elkartuko zarete taldetxoan.
- ✓ Ondoren, begiratu arretaz beheko bi irudiei eta aukeratu bat. Laurok irudi bera aukeratu behar duzue.



- ✓ Bikoteka, pentsatu nolako ezaugarriak dituen pertsonaia horrek. Hemen dituzue, laguntza moduan, ezaugarrien zerrenda eta hitz batzuk:

Koloreak	urdina, berdea, gorria, horia, beltza...
Tamainak	luzea, motza, txikia, handia, ertaina, zabala, estua...
Gizakiak deskribatzeko	lodia, argala, garaia, txikia, iletsua, ile luzea, ile horia, ile

- ✓ Bikote biak elkartu eta konpara itzazue deskripzioak. Berdinak dira? Zer alde dute? Bikote biek ezaugarri berdinei erreparatu diezue eta antzeko hitzak erabili dituzue?

Uste duzue irudiei begiratu gabe, beste ikasle batek marraztu ahal izango lukeela mutiko edo neskato rockero hori? Bildu itzazue zuen ondorioak eta talde handian ahoz azaldu.


Deskripzioak datu zehatz-zehatzak baino jasotzen ez baditu objektiboa dela esaten da. Deskripzio objektiboak begiz ikus daitekeena edo neurtu daitekeena jasotzen du deskribatzailearen iritzirik eta sentimendurik adierazi gabe.

Baina deskribatutakoari buruz iritzia edo sentimenduak adierazten badira, deskripzioa subjektiboa da.

Bi adibide hauek irakurri eta esan: Zein da objektiboa? Zein subjektiboa?

(...) Sudur gorri-gorria du pilota bat bezalakoa. Sudur barregarria da, pailazoarena ematen du.

(...) Sudur gorria du eta punta biribila dauka.



Zuen ustez, idatzi duzuen deskribapena nolakoa da subjektiboa ala objektiboa? Zergatik?

Bada, unitate honetan deskripzio subjektiboak lantzen ikasiko duzue. Gaztelania arloan ere musikaren inguruan arituko zarete eta hango deskripzioetan ere zuen iritzia, sentimenduak eta adieraziko dituzue.

3. jarduera. Euskal musika-tresnak deskribatzen


Nolakoak dira euskal musika-tresnak? Eta nolako soinua egiten dute?



Gogoratu gaztelania arloko unitatea lantzen baduzue, bertako baliabideak ere baliagarriak izango zaizkizuela atal hau lantzeko.

Zer esan soinuei buruz? Nolakoak dira? Politak? Itsusiak? Adjektiborik egokienak dira? Alaia da, esaterako, trikitiaren soinua? Zein musika-tresnak du soinu tristea? Zer adjektibo erabil daiteke soinua deskribatzeko?











Hodei honetan adjektibo pilo a duzue. Baten bat gehiago sar dezakezue bertan? Talde handian idatzi laukitxoetan sar daitezkeen beste adjektibo batzuk.



Jarduera hau talde handian burutuko duzue. Lehendabizi, entzun euskal musika-tresnen soinua esteketan klik eginez, eta, gero, saiatu denok elkarrekin horietako bakoitzari adjektiboak jartzen.

Hiztegietan kontsulta dezakezue: gelako hiztegietan nahiz sarekoetan ([Musika hiztegia](#); <http://hiztegia.net>). Irakasleak ere lagunduko dizue.

Gure musika-tresnen soinuak deskribatzen

		Adjektiboak
		
	<p>http://www.goeat.com/listen/ca5cfb9/urkiola-kupela-taldea-euskal-kanta-trikitixa</p> <p>https://www.youtube.com/watch?v=7Kx4R9qlcao</p> <p>http://www.youtube.com/watch?v=erbgR9RQtokhttp://www.goeat.com/search/Trikidantz-Trikitiba/</p>	
	<p>http://www.herrimusika.org/files/kontsultak/tresnak/238.p_anderoa-EH-iturbide.mp3</p> <p>http://www.youtube.com/watch?v=gn71S0ZnXxo</p>	
	<p>http://www.youtube.com/watch?v=6Y_PCKKiAB4</p> <p>http://www.herrimusika.org/bildumak/ikusi.php?id=eu&p=782</p>	
	<p>https://www.youtube.com/watch?v=i2B9ddL21LU</p>	
	<p>https://www.youtube.com/watch?v=p8SzIINZEvC</p>	
	<p>https://www.youtube.com/watch?v=rkP7NkqfvkU</p> <p>http://www.herrimusika.org/files/kontsultak/tresnak/094.al_boka.jotea.mp3</p>	
	<p>https://www.youtube.com/watch?v=4gMCDgfcjDs</p> <p>https://www.youtube.com/watch?v=YTmQ7LkOCHc</p>	
	<p>https://www.youtube.com/watch?v=U_XcjpacBvM</p>	
	<p>http://www.herrimusika.org/files/kontsultak/tresnak/003.xi_rula-ttuntun.mp3</p> <p>http://www.txistulari.com/mp3/eztai.mp3</p>	

3.1. Onomatopeiak

Eta musika-tresnak deskribatzen laguntzeko onomatopeiak erabiltzen baditugu? Badakizue onomatopeiak zer diren? Erantzun aurretik, ikusi bideo hau:



<http://www.youtube.com/watch?v=zBLAXQelKzs>

Onomatopeiaz josita dago abestia ezta? Bai, onomatopeiak soinu bat imitatzen duten hitzak edo hitz taldeak dira.

Zein dira beheko abesti honetan dauden onomatopeiak? Bikoteka elkartuta, testua irakurri eta onomatopeiak azpimarratu. Gaztelaniako unitatean ere honen inguruan arituko zarete. Erreparatu hango soinuei!

Entzuteko, egin [klik hemen](#)


Paristik natorren
Artista bat naiz ni.
Paristik natorren
Artista bat haiz hi.
Ondo jotzen det!
Baita guk ere!
Danborra nik jotzen det!
Pron, pron, pron;
Paristik natorren...
Biolina nik jotzen det!
Tiriri, tiriri,...
Pron, pron, pron,
Paristik natorren...
Turuta nik jotzen det!
Tururu, tururu,...
Tiriri, tiriri,...

Pron, pron, pron,
Paristik natorren...
Txindata nik jotzen det!
Txindata, txindata,...
Tururu, tururu,...
Tiriri, tiriri,...
Pron, pron, pron,
Paristik natorren...
Tronboia nik jotzen det!
Pra, pra, pra,...
Txindata, txindata,...
Tururu, tururu,...
Tiriri, tiriri,...
Pron, pron, pron

<http://www.goeat.com/listen/b2a9e66/paristik-natorren-artista-bat-naiz-ni-txirri-mirri-eta-txiribiton>

Beste abesti batzuetako onomatopeiak aztertu nahi izanez gero, honako hauek dituzue: [pandero zaharra](#), [erlojua](#). Bestalde, [euskal karaokea](#) webgunean makina bat abesti eta adibide topa ditzakezue ([helbide honetan](#) dituzue onomatopeiak dituzten kantak), klik egin besterik ez dago entzun eta ikusteko!

Zer onomatopeia ezagutzen duzue euskal musika-tresnen soinuak imitatzen? Txalapartarena? Eta beste musika-tresnena? Lotu onomatopeia hauek musika-tresnekin.



Beraz, onomatopeiak ere oso baliabide onak dira musika-tresnen deskribapenak egiteko. Erabili zuen deskripzioan! Beste batzuk ere asma ditzakezue!

3.2. Konparazioak

Adjektibo eta onomatopeiez gain, konparazioak ere erabil ditzakezue deskripzioetan iritziak eta sentimenduak adierazteko. Deskribatzen duzuen horri 'zuen ukitua' emango diozue konparazioen bidez. Hala, gauza bat oso zuria dela esateko, *elurra bezain zuria* esan dezakezue edo *nire amonaren ilea bezain zuria*, ezta?


Konparazioak egiten ditugunean berdintasunari edo desberdintasunari erreparatzen diogu:

- Berdintasuna markatzeko *adina, bezain, bezala...* morfemak erabiltzen ditugu.
- Desberdintasuna adierazteko, *baino...-ago*.
- Kopuru desberdintasuna adierazteko, *gehiago* eta *gutxiago*. zenbatzaileak.

Hona hemen **zenbait konparazio**.

Bikoteka elkartu eta aztertu. Zeintzuk dituzue gustuko?

- | | |
|--------------------------------------|-------------------------------|
| ✓ Hego haizea baino arinagoa | ✓ Ardatza baino tenteago |
| ✓ Esnea bezain zuria | ✓ Tximista baino azkarragoa |
| ✓ Lukainka baino luzeagoa | ✓ Harria baino gogorragoa |
| ✓ Akerraren adarra baino bihurriagoa | ✓ Mendiko arroka bezain gogor |
| ✓ Eztia bezain goxoa | ✓ Hego haizea baino harroago |
| ✓ Bi zangoak baino adiskideagoa | ✓ Haga bezain luzea |
| ✓ Labezomorroa baino itsusiagoa | ✓ Hatzak beste hari |
| ✓ Kupela baino lodiagoa | |



Zein konparazio erabil dezakezue musika-tresnekin? Edo konparazio horietatik abiatuta zein sortu dezakezue?

Esaterako: *Hiru zuloko txirula ardatza baino tenteagoa da!*



Egin bi konparazio goiko egiturekin (*bezain, baino—ago, beste...*). Talde handian zuzendu konparazioak.

Esaterako: *Trikitiaren soinua jostaria eta alaia da, udaberriko egun haizetsuak baino alaiagoa!*

Orain, exageratu, eta superlatiboak erabili. Esaterako: *Trikitia da munduko musika-tresnarik alaiena eta biziena!* Asmatu bi edo hiru, ea nor den exageratuena!:

Exageratuenari saria emango diogu!

4. jarduera. Ordenatuta ala desordenatuta?

Zuen ustez, edozein ordenatan deskriba daiteke? Orain gora, gero behera, berriro gora eta gero ezkeraldera?. Lehenengo nola erabiltzen den eta gero zer den?...Talde handian galdera horien inguruan hitz egingo duzue

Ordenatuta ala desordenatuta dago deskripzio hau? Zein musika-tresna da?

Danborrak lagunduta jotzen da. Tutu luzea dauka, beheko aldean zabalagoa da goiko aldean baino. Zortzi zulo ditu. Gehienetan, zurezkoa izaten da. Haize-instrumentua da. Tutuaren behealdean bi zulo daude albo banatan eta tutua konikoa da. Baina bada metalezkoa ere.Hatz txikiarekin ixten den zuloa (azkena) alboratua da, zazpi zulo ditu gainaldean eta bat goiko azpialdean.

...








Ez da zaila asmatzea zein den, ezta? Txirula da, bai. Baina nolako zorabioa batera eta bestera, inolako ordenarik gabe ibiltzea ezta? Saiatu denon artean goiko testua ordenatzen.

Nondik hasita, zer ordenatan deskriba daiteke beheko irudia? Nola deskribatuko zenukete?



Beraz, oso inportantea da ordena. Ondo pentsatu behar duzue nola ordenatuko duzuen deskripzioa: ezaugarri orokorretatik zehatzenetara, kanpoaldetik barruko aldera, barruko aldetik kanpoalderantz... Gaztelaniako unitatean, 6.2 jardueran, musika-tresnak deskribatzeko ordena bat proposatzen da. Modu horretan antola dezakezue euskal musika-tresnaren deskripzioa.

-  Zer da?
-  Zer tamaina du, zer forma du?
-  Zerez osatuta dago?
-  Nola jotzen da?
-  Zein da zuen iritzia?

Lan handia egin duzue dagoeneko. Landutakoa laburbiltzeko, gogoeta jarduera hau proposatzen dizuegu.

4.1. Gogoeta jarduera

Bi deskripzio dituzue, A eta B. Konparatu egingo dituzue: Zer alde dute? Zein da objektiboa eta zein subjektiboa? Zer baliabide daude deskripzio subjektiboan? Erreparatu deskripzioaren ordenari.

Bikoteka elkartuta, azpiko behaketa-orria beteko duzue.



PANDEROA

Zer da?

Zer forma du?

A) Perkusio tresna da. Uztai forma du musika tresna honek. Azala larruzkoa du eta inguruan txindata biribil txikiak ditu, metalezkoak. Esku batez heltzen zaio eta besteaz jotzen da. Trikitiarekin batera erabiltzen da.

Nola jotzen da?

Musika hiztegia

B) Perkusio tresna sinplea da. Uztai forma du, ilargi betea bezain biribila da. Larruzko azala du ia harria bezain gogorra eta zurruna. Inguruan *txin da ta-txin* alaia eta jostaria egiten duten zilar koloreko txindatak ditu, erditik elkarri lotuta. Metalezkoak dira txindata txiki horiek eta eguzkitan diz-diz egiten dute. eta dantzari ibiltzen dira uztaiaren inguruan. Soinu errepikakorra eta jostaria du musika tresna honek nire ustez. Esku batez heltzen zaio eta besteaz jotzen da. Trikitia alaiarekin batera erabiltzen da.

Zerez osatuta dago?

A) TESTUA	B) TESTUAN ERABILITAKO BALIABIDEAK
<p><i>Perkusio tresna da. Uztai forma du musika-tresna honek. Azala larruzkoa du eta inguruan txindata biribil txikiak ditu, metalezkoak. Esku batez heltzen zaio eta besteaz jotzen da. Trikitiarekin batera erabiltzen da.</i></p>	Konparazioak:
	Adjektiboak:
	Onomatopeiak:
	Iritzia adierazteko hitzak:

5. jarduera. Orain jolastera! NORK DU BESTE ERDIA?

Jarduera hau jolasa da eta sekuentzia didaktikoan ikasitako guztia jarri behar duzue praktikan. Ahoz arituko zarete.



Honela jardungo duzue:

- 1) Irakasleak bi zatitan ebakiko ditu musika-tresnen irudiak (eranskinetan daude).
- 2) Ebakitako irudien puska bakoitzean “a” eta “b” idatziko du atzeko aldean.
- 3) Talde bi egingo dira klasean: talde batekoek “a” zatiak izango dituzte, eta bestekoek, “b” zatia.
- 4) Irudien zatiak kartetan bezala pilatu a multzoan eta b multzoan.
- 5) Parte-hartzaileek zati bana hartuko dute multzotik, eta minutu batez aztertuko dute egokitu zaien zatia. Gogoratu zeri erreparatu behar zaion: formari, koloreei, tamainari...
- 6) Txandaka, parte-hartzaile bakoitzak bere zatia deskribatuko du. Beste taldekoek esan behar dute nork daukan txartelaren beste erdia.

Pertsona bik baino gehiagok beste erdia euren dela uste badute, jarraitu egin behar da deskribatzen, ahalik eta modurik zehatzenean deskribatu arte. Falta zaien erdia horixe dela frogatu eta egiaztatu behar dute .

6. jarduera. Guk hautatutako musika-tresnak deskribatzen eta marrazten

Dagoeneko ezagutzen dituzue euskal musika-tresnak, badakizue nolakoak diren, badakizue nolako soinua egiten dituzten eta gauza zarete konparazioak egiteko.... Heldu da, beraz, deskripzio-testua idazteko garaia.

Binaka edo hirunaka elkartuta arituko zarete, zeuok erabaki. Eta taldekatzearen arabera, bi edo hiru musika-tresna aukeratu dituzue. Talde handian erabaki behar duzue nola banatu dituzuen musika-tresnak, berdinak ez deskribatzeko.

Zirriborroa idazteko eta zer hartu behar duzuen kontuan gogoratzeko, erabili beheko kontrol-orria.



Musika-tresnen deskripzioak idazteko kontrol-orria

- ✓ Aztertu arretaz deskribatuko duzuen musika-tresna.
- ✓ Informazioa bildu ([Musika hiztegia](http://hiztegia.net); [http://hiztegia.net...](http://hiztegia.net))
- ✓ Musika-tresnaren ezaugarri esanguratsuenak zerrendatu:
 - Tamaina
 - Forma
 - Kolorea
 - Zenbat atal dituen
 - Zertarako erabiltzen diren
- ✓ Pentsatu zein ordenatan deskribatuko duzuen.
- ✓ Gogoratu deskripzio subjektiboa egingo duzuela, beraz, zuen iritzia, sentimendua, idatziko dituzue.
- ✓ Soinua identifikatzeko adjektiboak aukeratu.
- ✓ Onomatopeiak bilatu edo as
- ✓ Konparazioak erabili.
- ✓ Marrazkia egin eta kontuan dituzuen ezaugarriak.



Eranskinetan duzue deskripzioak idazteko eta musika-tresnak marrazteko txantiloia. Ez ahaztu informazio biltzea. Honako helbide hauetan topa dezakezue:

- Hiztegiak, entziklopediak: <http://www.hiztegia.net/entziklopediak.php>
- Musika hiztegia: http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/6503/eu_2415/adjuntos/Hiztegiak/MusikaHiztegia.pdf
- Euskal musika-tresnak: <https://musikaren-historia.wikispaces.com/Euskal+instrumentuak>

Testuak idatzita, beste bikote/hirukote bati pasatu zirriborroak iradokizunak egin ditzaten. Zuek ere modu berean jardungo duzue beste kide batzuen deskripzioekin. Horretarako, erabil ezazue beheko txantiloia.

 Zirriborroak zuzentzeko txantiloia	BAI ala Ez?	Zer egin daiteke hobetzeko?
Deskripzio subjektiboa da: ideiak, sentimenduak, iritziak... adierazten ditu.		
Musika-tresnaren ezaugarri nabarmenenak aipatzen dira (zer den, forma, atalak, zertarako erabiltzen den, nola jotzen den...)		
Testuak ordena argia du.		
Onomatopeiak daude eta erraz identifikatzen dira musika-tresnaren soinuarekin.		
Konparazioak ditu.		
Soinua deskribatzeko adjektiboak ditu.		
Txukun idatzita dago, eta ez dago akats handirik (hitzak, ortografia...)		
Marrazkiak ondo erakusten du testuak deskribatzen duena		

Kideek egindako **iradokizunak kontuan hartu. Testua zuzendu, orraztu eta listo!** Argiratzeko prest duzue!

Orain, guztion deskripzioak bildu.

Zer egingo duzue deskripzioekin? Ba, sekuentziaren hasieran, planifikazio jardueran erabaki duzuen: liburuxkak egiten badituzue, liburutegian, musika-tresnen erakusketan, ikasgeletan... leku askotan jar ditzakezue ikusgai!



Sarera ere igo ditzakezue eta liburu digitala egin zuen marrazki koloretsuekin eta deskripzio bizi eta aberatsekin. Horretarako, CALAMEO edo ISSU programak erabil ditzakezue. Hala, beste ikasle batzuekin partekatuko duzue, zuen lana eta euskal munduaren eta kulturaren berri hedatuko duzue ikastetxean ez ezik mundu zabalean ere..

Eta gaztelania arloan egin duzuen horma-irudi digitalean ere txertatu ahal duzue zuen liburuxka!

7. Zer egin dugu eta horrek zertarako balio digu?



Dagoeneko edozein objektu eta irudi deskribatzeko gauza zaretela uste dugu. Zer uste duzue?

Deskripzioen munduan, musika eta euskal kulturaren barruan murgildu zarete, eta hizkuntza landu duzue. Baina zer ikasi duzue egiten? Nola aritu zarete lanean?

Beheko orria betetzea proposatzen dizuegu egin duzuen lana balioesteko eta gogoeta egiteko. Zer egin dezakezue hobetzeko?



ZER EGIN DUT?

NOLA ARITU NAIZ?

ZER EGIN DEZAKET HOBETZEKO?



Gogotsu hartu dut parte talde lanean: planifikazioan eta jarduera guztietan.

Iradokizunak egin ditut eta beste kideen iritziak kontuan hartu ditut.

Euskal musika-tresnak hobeto ezagutzen ditut orain.

Badakit zer diren onomatopeiak eta konparazioak.

Konparazioak eta onomatopeiak egin ditut.

Nire gustuko musika-tresna deskribatu dut kideekin batera.

Marraskia egin dut deskripzioaren arabera.

...

1. eranskina. Jolas gaitzen deskribatzen. Euskal musika-tresnak



2. eranskina. Deskripzioak idazteko eta soinu-tresna marrazteko txantiloia



----- (Musika-tresnaren izena)

A large rectangular area with an orange border, containing ten horizontal orange lines for writing. In the bottom-left corner of this area, there is a small illustration of a hand holding a yellow pencil and a fountain pen.